

PETER FREY - GUNTER BRETTSCHEIDER.—*Baskische Legenden*. (Wie man den Teufel und andere Menschen überlistet. Baskische Legenden). Herausgegeben von Peter Frey und Gunter Brettschneider. Pendo-euskariana. Baskische Literatur im Pendo-verlag. Zürich, 1982.

Gure hizkuntzak, bere bitxitasunagatik, oihartzuna ez ezik ospe handia du herbestean, baina gure literaturak ez du behar haina oihartzun. Horregatik, bere zabalkundez egiten dena lan txalogarria zaigu eta alemanera itzuli berri den lan batek ondo merezia du gure aipamena.

*Baskische Legenden*, gizon batzuri esker, izan daiteke gure literatura munduan zehar zabaltzeko hasiera on bat «Pendo-euskariana» sailaren bidez. Gutienez ere, bere asmo ona ukatu ezinezkoa zaio sail hortako lehen liburu honi. Bere bultzatzailerik bizkorrenak P. Frey, G. Brettschneider eta Eduardo Txillida ditugu. Hirugarren honek, azalerako marrazkiaz gainera diru laguntza ere eman bai du. Bertan biltzen diren ipui eta kondairak euskaraz eta alemanez datoz. Lehen partean, Mayi Ariztiaren *Amattoren uzta* (1934) deritzan liburuko sei ixtorio; bigarren partean, Jean Barbierren *Légendes du Pays Basque* (1931) liburuko zortzi kondaira, liburu hau frantsez eta euskaraz dagoenez, euskarazkotik zuzenean hartuak dira; eta, hirugarren partean, Gregorio Mujikaren *Pernando amezketarra* (1927) deritzan bildumako hamabost ipui. Horiak osatzen dute liburua, baina azkenean badu eraskin bat, aleman hutsean, euskal hizkuntzari buruzko oharrez eta L.L. Bonaparte printzearen mapa alemanez jarria.

Liburuak Peter Frey-ren hitzaurre bat daroa eta Gunter Brettschneider-en sarrera. Itzulpena bera Brettschneider-ek egin da. Alemanez ez dakigu gure aburua emateko, baina bai bada-kigu Gunter-ek zein ongi dakien euskaraz gure hizkuntzatik bere jatorrizkora behar bezala itzuli ahal izateko. Hiru liburuetatik hautatu dituen ixtorio, kondaira eta ipuiak ere, gure eritziz, oso ongi hautatuak daude. Inprimaketaz zer esanik ere ez, txukun egin dela, Suizako inprimatzaileek ohi duten bezala.

Gure tradiziozko literatura herbesteetan ezagutarazteko liburu eredarria iduritzen zaigu eta horrek bedorrek merezi luke gaztelarara eta frantsezera itzultzea. Gure zorionik karstuenak argitalpen hortan partaide izan direnei.

J. S. M.